



## 2019-2023 AGINTALDIAREN BALORAZIOA

IZAL BAI udal taldetik amaitzear dagoen agintaldiaren balorazioa egiten dugu idatzi honetan.

Orain lau urte, hauteskundeak EHBilduk irabazi zituen argi eta garbi. Herritarren gehiengoak horrela erabaki zuen, eta guk onartu egin genuen, herritarrek eman ziguten egitekoa ulertuz eta horri ekinez.

Alkatetza irabazi zuen taldearekin hartueman zintzoan hasi ginen, behar zutenerako laguntza eskainiz, eta hasiera batean beraiek ere jarrera ona izan zutela esan behar dugu. Horrela batzorde banaketarekin akordioa lortu eta alkatetzarako gure bozka ere orain alkatea den Iñaki Alberdiren alde eman genuen horretarako udalbatzan.

Guk emandako eskuari ordea oso azkar, azkarregi, egin zion EHBilduk koxk. Herriak ezer gutxi aurreratu du lau urte hauetan, aho handiz hitzemandako hainbat gauza ez dira egin, ezta landu ere, eta lau urte hauetan marketinga eta transparentzia-eza izan dira eguneroko ogia.

Hona hemen konkretuki gure balorazioa:

- **ELKARLANERAKO JARRERA ESKASA:** gurekin ez dute ezertarako kontaktu, baztertu egin gaituzte etengabe gai ezbedinetatik, eta gureak ziren gaiak kudeatzeko askatasunik ere ez dugu izan. Informazioa ezkutatu ere egin zaigu eta gai askoren inguruan guk aritu behar izan dugu informazioa lortzeko ahaleginean, inbestigatzaile lanetan ia-ia. Transparentzia eza ez da gauza puntuala izan, eta ez bakarrik guri begira, herritarrei begira ere gai askoren inguruan ez dute informaziorik eman, nahiz eta gaia herrian zeresana emandakoa izan, gaztandegiaren gaia kasu.
- **ZERGA ETA TASAK URTERO IGO DIRA, LEHEN ZIOTENAREN AURKA.** Aurreko agintaldian adibidez IBla gehiegi igo zela eta hori jetsi beharra zegoela esaten zuten, agintaldi honetan jetsi ez, baizik eta lau urtetan urtero-urtero igo egin dute. Igerilekuko sarreraren prezio igoera salatu zuten 2019an, hauteskunde atarian, herrian arrabotsa sortuz, baina agintaldi honetan urtero-urtero igo dute hau ere.
- **ETXEBIZITZA POLITIKARIK EZ DA EGON.** Hauteskunde programan babes ofizialeko etxebizitzak hitzeman arren, udal gobernu honek 4 urte hauetan ez du pauso bakar bat ere eman herriko gazteei etxebizitza berriak eskaini ahal izateko, eta horretarako aurreikusita dauden lursailetan bestelako proiektu batzuk landu dituzte, aisirako gune bat adibidez. Plan orokorrean eremu horrek arazorik ez zuela izango jakin orduko ondorengo tramiteak lantzen hasi behar zuen udalak, baina ez dute pauso bakar bat ere eman. Aldiz, promozio pribatuetan oinarritzen dira herriko gazteen etxebizitza eskariari erantzuteko. Gainera, Idiazabalgo udalak bere jabetzakoa den partzela bat badu etxebizitza promozio bat egin ahal izateko, plan orokorraren onarpenaren zain egon gabe egin zitekeena, eta horren saiakera azkenekoz guk egin genuen 2018an, baina ez zen promotorerik

interesatu. Harrezkeroz EHBilduk ez du ezer egin. Alkilerreko laguntzak aterako zituela ere agindu zuen kanpaina, baina 4 urteotan ez da horren inguruko ezer egin.

- **GAZTERIA.** Udal honek gazteei eskaini dien politika bakarra jaiarena izan da, ez dute kanpaina hitzemandako bestelako ekimenik egin. Ezta exebizitza gaietan hitzemandako ekintzarik ere.
- **BASERRITARREKIN ZEGOEN DINAMIKA LEHERTU ETA HAUTSI DUTE.** Kanpaina arlo horretan lan ona egin zela esan eta horrekin jarraituko zutela esan bazuten ere, ez da horrela izan. BASERRITARREN ELKARTEA ez dute haintzat hartu nahi izan, eta 3-4 baserritar jakinekin aritu nahi izan dute lanean, herriko dinamika kolektiboa hautsiz eta baserritarren artean giroa gaiztotzera eramanez. Foru aldundiaren diru laguntza bati ere uko egin zioten 2020ean, hori egin zuen gipuzkoako herri bakarra izan zen gainera. Horrez gain beraien programan eraman zuten landa lurak GPSaz mugak erregistratzeko proiektua ere ez dute gauzatu, nahiz eta Foru Aldundiak 2021 eta 2022an horretarako diru laguntza deialdiak egin.
- **MARKETING USAINA DUTEN PARTEHARTZE PROZESUAK.** Hainbat izan dira udal honek aireratu dituen partehartze prozesuak. Hirigintza arlokoak (2021), kale nagusian oinezkoiei lehentasuna emateko helburua zutenak (2020), zepai inguruan sagastiaren eremuko (2021),.. baina zer gauzatu da horietatik? Ezer ez, 2019tik udalean dagoen irisgarritasun planak jasotzen dituen ekintzetatik haratago, ezer ez. Partehartzearen izen ponpoxoa erabiltzeko marketing egitasmoak izan dira.
- **KULTUR IKUSKIZUN ETA OSPAKIZUNAK.** Honetan uste dugu asko egin dutela, eta inoiz ez da gehiegi, zerbait ondo baloratzekotan hau baloratuko genuke.
- **KULTUR ETXEA ZEN BERAIEN PROIEKTU "IZARRA"** eta ez dute herritarrekin lantzeko talderik ere eratu, proiektuari heldu ere ez diote egin.
- **GURUTZE BERRI** auzoa ez zen beraiantzat lehentasuna programan, orain lau urteko hauteskunde programa ikustea aski da horretaz jabetzeko. 2020 amaieratik eskutan dute exekuzio proiektua baina 3 urte hauetan ez dira kapaz izan proiektuari behar zuen indarra eta dedikazioa emateko. Apirilaren 4ko udalbatzan onartu ziren azkenean obrako exekuzio pleguak, hauteskunde deialdia egin zen egun berean hain zuzen ere. Atzerapen hau aurretiaz egin beharreko lanak bere garaian egiteko behar bezalako ahalegina ez delako egin izan da. Jaurlaritzaren urteroko deialdi ohiko batean diru laguntza lortu da, kantitatez handia baina obraren %30a. Obraren kostu handiari aurre egiteko, RURAL KUTXArekin 2.720.542,80€ko kreditua ixtea onartu zen apirilaren 4ko udalbatzan. Oso garrantzitsua zen laguntzak lortzeko berebiziko ahalegina egitea, eta ez da egin. Gauzak oso berandu, presaka eta gaizki egin dira.
- **GASTU FINKOEN GORAKADA.** Azken agintaldi honetan gastu finkoen gorakada nabarmena izan da, 2019ko 928.307,21tik 2023ko 1.162.360,99ra, %25,21ko igoera pertsonal gastuetan. 2. Kapituluaren kontabilizatzen diren gastuak berriz, %10 jesteko helburua inoiz edo noiz komentatu bazuten ere, berdin mantzentzen da, zerbait gehiago gainera. Sarreraren igoera ere izan bada ere, ez da nabaritzen inbertsioak egiterako garaian. Sarrerak igoetatik ez dugu inbertsiorako kapazitate gehiago. Lau urteotan gastu finkoa jetsi eta inbertsio gaitasuna igotzeko guk egindako proposamenei entzungor egin die etengabe.
- **FUTBOL ZELAIAREN BELARRA ALDATU ETA EDUARDO IRIZAR KALEA ERABERRITU DIRA.** Horiek izan dira 4 urteotan egin diren gauza aipagarrienak, eta biak guk hasitakoak. Futbol Zelaia 2019ko udan egiteko diru partida jarri genuen eta lehiaketa prozedimentuko dokumentazioa ere ia hasita utzi genuen udaran egin ahal izateko. Eduardo Irizar kalea berriz, 2019ko aurrekontuetan sartu genuenean aurka azaldu ziren, eta agintaldi honetan ere ez zuten asmorik, baina guk bultzatu eta gero bertako auzotarrekin hitz eginda guk landutako proiektuari heldu behar izan zioten eta 2021ean exekutatu zen.
- **ENERGIA AURREZTEKO EKIMENETAN ERE HOTS GEHIAGO EKINTZAK BAINO.** 2019,2020,2021 ETA 2022an guztira 150.000€ aurreikusitako eta jarri ziren aurrekontuetan, baina %39a besterik ez da exekutatu, 58.500€ LAU URTEOTAN. 2023rako, urte bakar

baterako (hauteskunde urterako), 363.000€ko inbertsioa jarri zuten aurrekontuetan, lau urteetarako aurreikusitakoaren bikoitza baino gehiago, ikusi egin behar zenbat exekutatze den.

- **PUBLIZITATEAN ETA MARKETINGEAN OINARRITZEN DIRA.** Herritarroi publizitate asko helerazten digute, notizia positiboak sortzeko ahalegina egiten dute, aho zapore ona uzteko helburuarekin, baina benetan egin behar zutela esandakoaren eta egin dutenaren aldea handia da, kudeaketa gabeziaren ondorioz. Ez dute herritarrei emandako hitza bete.

- **UDALA HERRITARRON ORDEZKARITZA ERAKUNDEA DA,** baina EHBilduk ez du horrela ulertu lau urteotan hori. Hauteskundeak irabazita nahi duten bezala eta beraiek bakarrik kudeatzea dela erabaki dute, herritar askoren ordezkari aldea batera utziz. Aurreko agintaldian, oposizioan zeudenean, ez zuten aktiboki elkarlanean parte hartu nahi izan, eta orainoan ez digute aktiboki eta elkarlanean parte hartzen utzi nahi izan. Guk hala ere, arduraz, proposamenak eginez, eta ahal den neurrian kontrol lan konstruktiboa eginez jardun dugu, kritikak aurpegira eta behar diren lekuan eginez, guk azken urteetan izan ez genuen oposizioa eginez alegia.